

# ARAUDI OROKORRA

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### *1. artikulua*

SANTURTZIKO UDAL KIROL INSTITUTUA, hemendik aurrera UKI, Santurtziko Udalaren Erakunde Autonomo bat da eta bere helburua bere gobernu-organoetan ezarritako udal kirol-politika definitzea eta aplikatzea da, eta baita Santurtziko Udalaren kirol-zerbitzuak kudeatzea eta administratzea, une bakoitzean bere ondarea osatzen duten ondasunak eta instalazioak kontserbatzea eta konpontzea, hori hedatzea eta kirol-instalazio berrien plangintzan, diseinuan eta eraikuntzan parte hartzea ere.

Santurtziko UKI-k hurrengo kirol-instalazioak ditu:

- El Puerto Udal Kiroldegia, Reina Victoria pasealekuan, z/g.
- Kabiezes Kirol-Zentroa, Axular kalean z/g.
- Beste udal-instalazio batzuk.
- Jabetza pribatukoak diren eta erabilera publikorako Udalari laga zaizkion beste instalazio batzuk.

#### *2. artikulua*

UKIren estatutuen garapena betez eta 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, bere xedapenetan ezarritakoari jarraituta, Santurtziko Udalbatzak ondoko Araudia onartu du. Araudi honen bidez, 1. artikuluan aipatutako instalazioetako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautu eta erabiltzeko baldintzak ezarri gura dira.

#### *3. artikulua*

UKIk xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea izango du Araudi hau argitzeko, aldatzeko edo garatzeko. Araudia eta berariazko arau bereziak (ordutegia, tasak, etabí ) eskuragarri egongo dira jendeak ikus ditzan, doan banatuko diren inprimakien bidez.

#### *4. artikulua*

Pertsona fisikoek, ikastetxeek, kirol-elkartek eta klubek, eta beste erakunde batzuek, euren helburuetako bat kirola sustatzea eta garatzea bada eta instalazioetara sartzeko baldintzak betetzen badituzte, 1. artikuluan zehaztutako kirol-instalazioak erabili ahal izango dituzte.

Era berean, unean-unean, instalazioetan kirol-jarduerak ez diren beste erabilera batzuk ere egin ahal izango dira, dagozkien baldintza bereziak betetzen badituzte.

### **5. artikulua**

Araudi honek araututako kirol-instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeagatik ezarri ahal diren tasak edota prezioak Udalbatzak urtero onartutakoak izango dira. Horretarako, Udalbatzak zerga-ordenantza aldatu beharko du, aurrez, UKIren Artezkaritza Batzarrak onartuta. Tasa edo prezio horiek urte bakoitzeko urtarrilaren leian sartuko dira indarrean, kontrako aipurik egin ez ezean.

## **II. TITULUA**

### **ERABILTZAILEAK**

### **6. artikulua**

Honako erabiltzaile-mota hauek bereizten dira:

1. Harpidedunak
2. Erabiltzaileak
3. Kirol-elkarteak
4. Ikastetxeak
5. Beste enpresa edo talde batzuk

### **1. KAPITULUA:**

### **HARPIDEDUNAK**

### **7. artikulua**

1. Hala eskatzen duten lagun guztiak UKIko harpidedunak izango dira, ondorio horretarako ezarritako baldintzak betetzen badituzte, batez ere, afiliazioari, norberaren datuei eta legeak ezarritako tasa edo prezio publikoa ordaintzeari dagozkionak.
2. Oro har, abonuak mota askotakoak izango dira (familiakoak, banakakoak, arruntak, konbinatuak, urtekoak, sei hilekoak, hilekoak, etabí ). Euren onurak, ezaugarriak eta zerbitzuak berariaz arautuko dira dagozkien zerga-ordenantzetan.
3. Harpidedun-txartela balio duen tankera horretako egiaztagiri bakarra da, eta horren bidez instalazioetara sartu ahal izango da. Horrela bada, UKI-ko langileek edozein unetan txartel hori eta instalazioetara sartu aurretik dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria eskatzeko baimena izango dute.
4. Harpidedun-txartela pertsonala eta besterenezina da; beraz, titularra ez den beste lagun batek erabiltzen badu, txartela kendu egingo zaio hil batez eta Institutuak ez dio inolako diru-kopururik ordaindu beharko. Behin eta berriz gertatuz gero, hutsegite larritzat joko da, eta dagokion eran zehatuko da.
5. Harpidedun-txartela galtzen bada edo hondatzen bada, bere eginkizunerako balio ez duela geratuz, UKIri jakinarazi beharko zaio berehala. Hala, UKIko txartel berria egingo du, aurrez, legeak ezarritako tasa ordainduta.
6. Prezio publikoa edo harpidedun-tasa ordaintzeko, lehentasunez, ordainketa banketxera helbideratuz egingo da. Baina, gura izanez gero, UKIko harrera-lekuan ordaindu ahal izango da esku-dirutan, txartelaz, edota UKIko ondorio horretarako emandako banku-kontuan dagokion zenbatekoa sartu izanaren ziurtagiria aurkeztuz.

7. Harpidedun izateari utzi gura dion harpidedunak jakinarazi egin beharko du, bera instalazioetara joanda edo telefonoz, faxez, posta arruntaz zein posta elektronikoz, gutxienez, hamabost egun naturaleko aurrerapenez harpidedun-aldiaren epea amaitu aurretik. Horrela egin ezean, hurrengo aldian harpidedun izaten jarraitu gura duela ulertuko da.
8. Ordainketa-kuotari dagozkion itzulitako ordainagiriak ezarritako eran eta epean ordaindu beharko dira. Ezarritako epean ordaindu ezean, automatikoki baja emango zaie txartel horiei, harik eta ordaintzeke dagoen zenbatekoa ordaintzen den arte.

## **2. KAPITULUA:**

### **ERABILTZAILEAK**

#### **8. artikulua**

1. Harpidedunak ez diren erabiltzaileek kirol-instalazioak eta zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, aurrez, dagokion ordenantzan egin gura duten zerbitzurako ezarritako tasa edo prezio publikoa ordainduta.
2. Harpidedun-txartela balio duen tankera horretako egiaztagiri bakarra da, eta instalazioetara sartu ahal izateko hori derrigorrezkoa izango da.
3. UKIko langileek erabiltzaile-txartela edota dagokion tasa ordaindu izanaren ziurtagiria eskatu ahal izango dute, instalazioetara sartu ahal izateko.

## **3. KAPITULUA:**

### **KIROL-ELKARTEAK ETA KLUBAK**

#### **9. artikulua**

1. Legez eraturako kirol-elkarteak, tokiko kirol-klubak eta federazioak lehiaketa-kiroleko ordezkari baliozko bakarrak izango dira UKIren aurrean.
2. Ondorio horretarako, kirol-elkarte edo klub bat legez eraturat joko da bere estatutuek Eusko Jaurlaritzaren Kiroleko Zuzendaritza Nagusiaren oniritzia badute, eta Udaleko Kirol Elkarte eta Kluben Erregistroan inskribatuta badute.
3. UKIko instalazioak erabiltzen dituzten kirol-klubetako kirolariak harpidedunak izan beharko dute edo, bestela, UKIk emandako kirolari-txartelaren titularrak. Azken egoera horretan egonez gero, euren klubari ezarritako instalaziora eta orduan sartu ahal izango dira.
4. Egoitza soziala Santurtzin duten klubek, lehenago aipaturako baldintzak betetzen badituzte, UKIko instalazioak erabili ahal izango dituzte euren jarduerak egiteko zehaztutako orduetan eta egunetan.
5. UKIk, interesa duten klub guztien beharrak jakin ostean, instalazioak erabiltzeko orduak banatuko ditu eta kirol-aldi batean balioa izango dute.
6. UKIk lehen zehaztutako instalazioak eta sailak erabiltzeko emakidak eman gabe utzi ahal izango ditu, lehentasunezkoztat jotzen dituen beste jarduera batzuetarako erabiltzeko, behar bezala arrazoitzen badu eta dagokienei aurrez jakinarazten badie.
7. Lehiaketa ofizialak egiteko, kirol-klubek idatziz jakinarazi beharko dituzte egingo dituzten ekitaldiak, 15 eguneko aurrerapenez.
8. Entrenatzeko eta lehiaketa ofizialak egiteko ordutegiek kirol-instalazioen ordutegi orokorrak bete beharko dituzte.
9. Antolatzaileek izango dute kirol-elkaratek eta klubek antolatutako kirol-ekitaldien erantzukizun zibila (entrenamendu-saioak barne). Ondorio horretarako, erantzukizun

zibileko poliza kontratatu beharko dute eta, aldiaren hasieran, UKIri horren kopiak eman beharko dizkiote.

#### **4. KAPITULUA:**

##### **IKASTETXEAK**

###### *10. artikulua*

1. Santurtziko ikastetxeek, euren eskola-ordutegiaren eta egutegiaren arabera, UKIren instalazioak erabili ahal izango dituzte, UKIk euren beharrak entzun ostean zehaztuko dituen baldintzapean, eta oro har ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu barik.
2. Ikasle-taldeak taldeka sartuko dira instalazioetara Ikastetxeko arduradunaren laguntzarekin. Arduradunak nor den esango die harrera-lekuko langileei.
3. UKIk bultzatutako eta antolatutako kanpainen ikastetxeek euren borondatez parte hartzen badute, irakaslea UKIk ipiniko du. Irakasle horrek taldearen erantzukizuna izango du instalazioetako ateetatik barrura, baina ez da arduratu beharko ikasleak instalazioetara eroateaz.
4. Eskola-kiroleko programak kirol-instalazioetan egin ahal izango dira ezarritako baldintzapean, aurrez, programa horien ardura duen erakundeak berariaz eskatuta.

#### **III. TITULUA:**

##### **KIROL-IKASTAROAK ETA KANPAINAK**

#### **1. KAPITULUA:**

##### **XEDAPEN OROKORRAK**

###### *11. artikulua*

1. UKIk, kirola sustatu guran, urtero kirol-ikastaroak eta kanpainen antolatuko ditu, eta herritar guztiei zabalduko die eskaintza.
2. Ikastaro eta kanpaina horien helburu nagusia erabiltzaileak ahalik eta gehien gogobetetzea eta kirola ezagutaraztea izango da.
3. Oro har, ikastaroak urtean zehar egingo dira, dagoen eskaeraren arabera.
4. Ikastaroek eta kanpainen Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzak ezarritakoa bete beharko dute.
5. Hala ikastaroen nola kanpainen eta lehiaketan inskripzioan gehienezko eta gutxieneko kopurua egongo da ikastaroak, kanpainen edo lehiaketak aurrera egin dezan. Ezarritako gutxieneko kopurura iritsi ezean, ikastaroak, kanpainen edo lehiaketak ez dira hasiko, eta gehienezko kopurua gaindituz gero, bete barik dauden lekuak inskripzio-hurrenkeraren arabera beteko dira zorrozki.
6. Izena emateko eskaria edozein unetan egin ahal izango da, baldin eta bete gabeko tokiak badaude, eta eperik gabekoa izango da jarduerak irauten duen bitartean. Baten batek ikastaroa edo kanpaina utzi nahi badu, Udal Institutuko bulegoetan jakinarazi beharko du, gutxienez, baja hartu gura duen hilea baino zazpi (7) egun natural lehenago.
7. Norbaitek prezio publikoa ordaintzen ez badu, berehala emango zaio baja, eta lagun horrek beste jardueraren edo zerbitzuren batean berriro izena eman gura badu, aurrez, ordaindu gabe utzitako kopurua ordaindu beharko du.

8. Kirol-jarduera bat hasi baino lehen edo ikastaro batean izena eman aurretik, UKIk edozein erabiltzaileri eskatu ahal izango dio azterketa medikoa egiteko, bere kirol-medikuntzako zerbitzuetan edo beste edozein zentro gaitutan.
9. Ikastaroetan izena emateko lehenengo eguna Udal Institutuko harpidedunentzat gordeko da. Eskari handia dagoenean, UKIk pertsona harpidedunentzako eskusiboa den inskribapena izango duten jarduerak egiteko eskubidea izango du, eta era berean, inskribapen-ordena zozketa publiko bidez egin ahalko du, aurretik argitaratutako datetan eta ordutegietan.
10. Edozein arrazoi dela eta, UKIk ikastaro edo kanpaina bat aldi baterako edo behin betiko bertan behera utzi behar badu, ordaindutako diru-kopurua itzuliko du, ikastaroa jaso ez den aldiengatik, jardueraren garapena erabat eragozten duten arrazoiak egon ezik, betiere horiek UKIren erantzukizuna ez bada. Aldiz, baldin eta aurrez izena eman duen jarduerara joateari utzi nahi diona erabiltzailea bada, ez du ordaindu duena berreskuratzeke eskubiderik izango.

#### **IV. TITULUA:**

### **INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA HORIEK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK**

#### ***12. artikulua***

1. Instalazioetan sartzeko, oro har, UKIk emandako txartela (hala harpidedun-txartela nola erabiltzaile-txartela) edo harrera-lekuan tasa edo prezio publikoa ordainduz erositako sarrera-txartela erakutsi beharko da.
2. Lau urtez beherakoak, euren erantzukizuna duen adinez nagusi batek lagunduta, ordaindu barik sartu ahal izango dira.
3. UKIren edozein langileak erabiltzaile jaun/andreei, aurrez bere burua aurkeztu eta nor den jakinarazi ostean, eskatu ahal izango die 12. artikuluko 1. puntuan aipatutako agiriak aurkez ditzaten.
4. UKI ez da armairuetan edo aldageletan utzitako gauzak zaintzeaz arduratuko. Izan ere, UKIk ez du gordailu-kontratu bidez gauzaki horien gordailua babestu; UKIk harrera-lekuko langileei aurkeztu ostean kontsignan utzitako gauzak zaintzeko erantzukizuna baino ez du.
5. Lehiaketak eta ikuskizunak egiten direnean, erakunde antolatzaileek izango dute jendeak instalazioetan egiten dituen ekintzen erantzukizuna. Lehiaketa ofizialak izatekotan, egindako kalteak dagokion federazioari eta klubari jakinaraziko zaizkio, eta kalteak egin dituen taldeko kideei ez zaie UKIn sartzen utziko, harik eta egindako kalteak ordaintzen dituzten arte.
6. Pertsoneri edo ondasunei egindako edozein kalte egilearen edo egin duen taldearen erantzukizuna izango da.
7. UKIk Erantzukizun Zibileko Poliza bat izenpetu du bere instalazioetan kirola egiteagatik sortutako kalteetarako, gertatutako kaltearen eta zerbitzuaren ez ohiko jardueraren artean arrazoi-ondorio erlazioa bada.
8. Instalazioak erabiltzeko kirolerako jantziak erabili beharko dira eta kirol-mota bakoitzaren bereizgarriak errespetatu beharko dira.
9. Armairuak kirol-jarduerak dirauen artean eta instalazioetan egon bitartean erabiliko dira. Behin jarduera bukatu denean, armairuak hutsik gelditu beharko dira. Horrela bada, aldizka UKIk publikora irekita dagoen ordutegitik kanpo beteta dauden armairuak hustuko ditu.

10. Instalazioen barnealdean jatea eta kristalezko objektuak sartzea debekatuta dago, kafetegiaren eremuan izan ezik.
11. 12. Higiene-osasuneko arazoak direla medio, instalazioetan bizarrak moztea eta depilatzea debekatuta dago.
12. Abenduak 28ko 28/2005 Legea betez, instalazioetan erretzea debekatuta dago. Une bakoitzean indarrean dagoen legedia aplikatuko da.
13. Guztiz debekatuta dago instalazioetara edozein motatako animaliarekin sartzea.
14. Jantziak aldatzeko, talde edo jarduera bakoitzari eman zaizkion aldageletara joan beharko da.
15. Instalazioko edo bere perimetroko edozein tokitan publizitatea ipini gura duten Kirol-elkarteek, Federazioek edo Kirol-klubek, aurrez, UKIren berariazko baimena lortu beharko dute.

## **V. TITULUA:**

### **ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **1. KAPITULUA:**

##### **ESKUBIDEAK**

###### ***13. artikulua***

Harpidedun guztiek Santurtziko Udalak urtero onartzen dituen Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzetan zehaztutako ordainketa-erei dagozkien eskubideak eta zerbitzuak izango dituzte, beti ere, euren txartela aurkezten badute, behar bezala eguneratuta.

###### ***14. artikulua***

Harpidedun guztiek eskubidea izango dute Udal Institutu honetako instalazioak erabiltzeko, ezarritako arauen arabera eta instalazioak jendearentzat irekita dauden orduetan.

###### ***15. artikulua***

Udal Institutuko harpidedunek eta harpidedun ez direnek ondorengo eskubideak izango dituzte:

1. Dagozkien araudi bereziak betez, Santurtziko Udaleko Kirol Institutuak eskainitako zerbitzu guztiak erabiltzea.
2. Bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak egiteko xedez, edozein unetan, instalazioetako zerbitzuetako edozein enplegatari nor den esateko eskatzea.
3. UKIko enplegatuek begirune osoa erakustea eta zuzentasunez eta atseginez tratatzea.
4. UKIri instalazioei edo zerbitzuei buruzko edozein zalantza, iradokizun edo kexa aurkeztea.
5. Araudi honen ale bat eskatzea.
6. Indarrean dagoen legerian batutako beste edozein eskubide eskatzea.

#### **2. KAPITULUA:**

##### **BETEBEHARRAK**

**16. artikulua**

Harpidedunek eta erabiltzaileek oro har honako betebeharrak izango dituzte:

1. Instalazioak eta zerbitzuak erabiltzea araudi honetako arauak betez eta UKIko langileek esandako moduan.
2. Instalazioak eta bertako ekipamendua behar bezala erabiltzea, eta laguntza ematea gainerako erabiltzaileek ere zuzen erabil ditzaten.
3. Beste erabiltzaileei begirunea izatea.
4. Zerbitzuen onura jaso aurretik, Legeak ezarritako eta indarrean dauden tasak edo prezio publikoak ordaintzea.
5. UKIko enplegatuei funtzionamendu-arazoak, hausturak, hutsuneak edo Araudi honetan ezarritakoaren hausteak jakinaraztea.
6. Instalazioetan zuzen jokatzeko eta, hala, enplegatuen lana erraztea.
7. Indarrean dagoen legerian eta Araudi honetan xedatutako beste edozein betebeharrak.

**IV. TITULUA:**

**KIROL-EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO ARAUAK.**

**1. KAPITULUA:**

**IGERILEKU ESTALIAK ETA HIDROMASAJE BAINUONTZIAK**

**17. artikulua**

1. El Puertoko Kiroldegia igerilekuen erabilera herritarren jarduera fisikora eta ur-aisialdira zuzenduta dago, eta baita igeri egiten ikastera eta hobetzera ere. Era berean, hainbat eremu (kaleak) eta ordutegiak kirol-klubek erabiliko dituzte euren jarduera espezifikoak aurrera eramateko. Kabiezeseko Kirol-Zentroko igerilekua, pertsona abonatu eta erabiltzaileen igeriketa askera zuzenduta dago nagusiki. Modu berean eta erabiltzaileen eskariari erantzuteko, hainbat eremu (2 kale) eta ordutegi igeriketa-ikastaroak emateko erabili ahal izango dira. Kabiezeseko Kirol-Zentroko plisti-plastako igerilekua, 6 urte arteko haurren erabilerara zuzenduta da, betiere pertsona heldu arduradun batez lagunduta.
2. UKIk ez du erantzukizunik izango igerilekuaren erabiltzaileek izan ditzaketen istripuez, baldin eta istripua erabiltzaileek igeri egiten ez dakitelako edo zuzentzeko jokatu ez dutelako gertatzen bada. Ondorio horretarako, debekatuta dago zortzi urtetik beheragoko haurrak sartzea (Udal Institutuak antolatutako programetan zein ikastaroetan izan ezik), euren ardura duen adinez nagusi batek lagunduta ez bada.
3. UKIk igerilekuko kaleen banaketa antolatuko du eta ageriko toki batean ezarriko du; horretarako, bertan egiten diren jarduerak aintzat hartuko ditu: bainu librea, ikastaroak eta ekitaldiak, eta klub programak.

4. Hidromasajeko zonak bi bainuontzi ditu eta horietako bakoitzak 8 pertsonetarako lekua du. Araudi honen arabera, igerilekua osatzen duen multzoaren barne dago, nahiz eta sarrerako arau eta baldintza espezifikokoak dituen.
5. Hidromasajeko bainuontziak erabiltzeko arauak ageriko toki batean egongo dira ipinita, bertara sartu aurretik. Erabili aurretik zure medikuari galdetzea gomendatzen da. Bainu horiek hardun dauden emakumeentzat, barize larriak dituzten pertsonentzat eta baita arteria-presio baxua duten pertsonentzat kontraindikaturata daude.
6. Bereziki, higie-ne eta osasun-neurri zorrotzak egongo dira: dutxa hartu beharko da, baita igerilekutik irten ostean joanda ere, ezin izango da igerilekura buruz murgildu eta ezin izango da inolako kosmetika-gairik, xaboirik edo gelik erabili.
7. Baliabide eta bitarteko publikoak erabiltzen aurreztearren, lehenengo eta bigarren bainuontziak aldi berean martxan egongo dira bakarrik lehenengo bainuontzian lau erabiltzaile baino gehiago batera daudenean.
8. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumoko Saileko Euskal Herriko talde-erabilerako igerilekuentzako higie-ne-araudia den Otsailak 18ko 32/2003 Dekretuan ezarritakoa betez hurrengo erabilerako arautegi orokorra ezartzen da:
  - a) Igerilekua jendearentzat irekita dagoen orduetan, behar diren tituluak dituen sorosle bat egongo da bertan.
  - b) Portuko Polikiroldegian igerilekuaren gehie-nezko edukiera hurrengoak izango da:
    - Neguko mistoa:
      - ontziaren edukiera-----291
      - instalazioaren edukiera-----875
    - Familiarra:
      - ontziaren edukiera-----104
    - Haurrena:
      - ontziaren edukiera-----25
    - Familiarra+aurrena
      - instalazioaren edukiera-----385
  - c) Kabiezeseko Kirol-Zentroa:
    - ontziaren edukiera-----66
    - instalazioaren edukiera-----242
  - c) Igerilekuen ontzietara sartzeko aurrez dutxatu behar da.
  - d) Bainu-txanoa erabili behar da.
  - e) Bainuko txankletak edo zapatilak erabiltzea gomendatzen da, eta horiek ezin dira igerilekuaren perimetroko saretxoan utzi.
  - f) Guztiz debekatuta dago erabiltzaileak bainatzeko alderdira sartzeko kaleko jantziz edo oinetako. Instalazioko zerbitzuko langileek, bertan egotea nahitaezkoa denean, kaleko oinetakoak badituzte, plastikozko zorroak jantziko dituzte.
  - g) Guztiz debekatuta dago instalazio honetan erretzea zein jatea.
  - h) Soroslea igerilekuaren arduraduna da eta horregatik momentu oro errespetatua izan behar da, eta era berean megafoniako oharrak, KUI-ak instalazioko itxiera ordutegiak eta igeri egiteko zentzua eta kaleen antolaketa errespetatu behar dira.
  - i) Erabat debekatuta gelditzen da uraren bidez edota banaketa kortxera edo igeriketa-taulak bezalako elementu pasiboen bidez kontaktu zuzena edo zeharkako transmisio errazeko gaixotasunak dituzten pertsonak bainuko eremuan



sartzea. Dudaren bat izanez gero, KUI-ko zerbitzu medikuen langileei galdetu beharko zaie.

- j) Ezin da igerilekuaren hondartzatik korrika egin, ezin dira beste erabiltzaileak eragozten dituzten eta horientzako arriskutsuak diren jokoak egin, eta kortxeratara heltzea edo horietan esertzea eta irteerako plataformetatik saltatzea debekatuta dago.
- k) Beren kirol-praktikarako materialen bat nahi duten pertsonak sorosleari eskatu beharko diote eta behin hori erabiltzen bukatu eta gero, eman eta bere lekuan jarriko dute. Hegatsak eta palak (izaera pertsonalekoak), bakarrik igeriketa-maila azkarrerako egokitutako kaleetan erabili ahal izango dira.
- l) Debekatuta dago animaliak instalazioan sartzea.
- ll) Instalazioaren barrutiaren barruan hondakinak uztea debekatuta dago, horretarako zuzendutako paper-ontziak edo beste ontziak erabili behar dira.
- m) 8 urte baino gazteagoak diren haurrak heldu batekin sartu beharko dira.
- n) Debekatuta dago buruz jauzi egitea.

## **2. KAPITULUA:**

### **ESTALI GABEKO EDO UDAKO IGERILEKUAK**

#### ***18. artikulua***

- 1. UKIk ezarriko du instalazio hau irekitzeko denboraldi ofiziala, eta egunak eta orduak jakinaraziko ditu dagokion eran.
- 2. Eguraldi txarra izateak ez du eskubiderik emango sarreraren kostua itzultzeko.
- 3. UKIko harpidedunak ez diren lagunek, ezarritako tasa edo prezio publikoa ordaindu ostean, erabilera eta sarrera bakar baterako balio duen txartela erosi beharko dute.
- 4. Instalazio honetan igerileku estalian dauden arau berak aplikatuko dira, bainuko gorroa eta zehaztutako eremuetan buruz jauzi egiteko debekua izan ezik. Bere edukiera hurrengoan ezartzen da:

Udako mistoa ontziaren edukiera .....	437
Olinpikoa ontziaren edukiera. ....	408
Udako instalazioaren edukiera totala.....	2.907

## **3. KAPITULUA:**

### **ERABILERA ASKOTAKO GIMNASIOAK**

#### ***19. artikulua***

- 1. Bertara sartzeko kirol-oinetakoak eta jantziak eraman beharko dira soinean.
- 2. UKIk antolatutako ikastaroen eta ekitaldiek erabiltzeko lehentasuna dute. Debekatuta dago horietan izena eman ez dutenak sartzea.
- 3. Elkarteek edo taldeek hartuta ez dauden orduetan erabili ahal izango dituzte, aurrez, berariazko eskaria eginda.
- 4. Jarduera Anitz izena duten programetan inskribatuta dauden pertsona guztiak Portuko Polikiroldegirako ezartzen den programaz eta Kabiezeseko Kirol-Zentroan

programatzen diren jardueretaz gozatu ahalko dute. Hala ere, jarduera zehatz eta espezifikoko batean inskribatutako pertsonak, bakarrik programa zehatzera joan ahalko dira, adierazitako egunetan eta talde bakoitzera ezarritako ordutegian.

#### **4. KAPITULUA:**

##### **FITNESS ARETOA ETA MUSKULAZIO ARETOAK**

###### ***20. artikulua***

1. Aurrez jarduera honetan izena eman duten lagunak sartu ahal izango dira areto hauetara, indarrean dauden Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzetan dauden zehaztapenak betez.
2. Instalazio hauetara sartzeko kirol-oinetakoak eta jantziak erabili beharko dira.
3. Harrera-lekuko langileek zehaztuko dute erabili beharreko aldagelak zein diren.
4. Debehatuta dago 16 urte baino gazteagoak bakarrik sartzea, pertsona heldu batez lagunduta ez badoaz.
5. Materiala eta ekipamendua erabili ostean, dagokion lekuan utzi beharko da.
6. UKIko langile teknikariek aholkuak emango dizkiete eta banakako programak egingo dizkiete hala eskatzen duten eta ezarritako kuota ordaintzen duten erabiltzaileei.

#### **5. KAPITULUA:**

##### **KIROL ASKOTARAKO PISTA.**

###### ***21. artikulua***

1. Instalaziora sartu nahi duten guztiek kirol-jantziak eta oinetakoak erabili beharko dituzte, entrenatzaileek eta beste klub batzuetako lagunek barne.
2. Kirol-oinetakoan zolak zuria edo kolore argi batekoa izan beharko du, jokogainazalean oinatzik ez uzteko.
3. Kontroleko langileek adieraziko dute zein aldagela erabili behar den. Taldeak izanez gero, taldeko aldagelak erabiliko dituzte eta aldagelen giltza taldeko arduradunari emango zaio.
4. Instalazio hauen erreserba egiteko eta erabiltzeko aintzat hartuko dira ondorio horretarako emandako arauak, Araudi honetako 29. artikuluan jasota daudenak, eta indarrean dagoen Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzari dagozkionak.

#### **6. KAPITULUA:**

##### **SQUASHSAK.**

###### ***22. artikulua***

1. Kapitulu honetan aipatutako instalazioetara sartzeko kirol-oinetakoak eta jantziak erabili beharko dira.

2. Kirol-oinetakoan zolak zuria edo kolore argi batekoa izan beharko du, jokogainazalean oinatzik ez uzteko.
3. Kontroleko langileek adieraziko dute zein aldagela erabili behar den.
4. Instalazio hauen erreserba egiteko eta erabiltzeko aintzat hartuko dira ondorio horretarako emandako arauak, Araudi honetako 29. artikuluan jasota daudenak, eta indarrean dagoen Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzari dagozkionak.

## **7. KAPITULUA:**

### **ATLETISMO PISTA**

#### **23. artikulua**

1. Instalazio honetara kiroleko arroparekin eta oinetakoekin sartu beharko da, edozein bota mota erabiltzea debekatuta espresuki debekatzen da. Era berean, belarraren barruko eremuan tako metalikoak erabiltzea debekatzen da.
2. Pistetan ezin izango da pisuekin lanik egin, Atletismoko osagarri espezifikoekin egiten direnak izan ezik.
3. Instalazio honetan debekatuta dago jatea eta erretzea.
4. Entrenatzeko eta lasterketa jarraituko lanak egiteko perimetro-pista urdina erabiliko da; pista hori, dituen teknika-baldintzekin, erabilera horretarako egokiena da-eta. Pistak 470 metroko luzera du.
5. Ez egin 1. eta 2. kaleen erabilera librerik. Bestalde, 3. eta 4. kaleak abiadura-entrenamenduetarako, iraupen-lasterketetarako eta iraupen erdiko lasterketetarako erreserbatuta daude.
6. Beste lagunek egoki erabil dezaten, lasterketaren norabidea erlojuaren orratzek dutenaren kontrakoa izango da.
7. Entrenatzeko materiala erabiltzen duten klubek, entrenamendua amaitu ostean, materiala utzi beharko dute dagokien biltegietan.
8. UKIk behar bezala arautuko ditu jaurtiketa luzeen entrenamenduak (xabalina, diskoa eta mailua), erabiltzaile guztien segurtasuna bermatuz.
9. Instalazio hauen erreserba egiteko eta erabiltzeko aintzat hartuko dira ondorio horretarako emandako arauak, Araudi honetako 28. artikuluan jasota daudenak, eta indarrean dagoen Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzari dagozkionak.
10. Atletismoko, Arku-tiroketako, Futbol Amerikanoko eta abarretako lehiaketak egiten direnean, UKIk instalazio honen erabilera murriztu ahal izango du, aurrez, horren berri aditzera emanda.

## **8. KAPITULUA:**

### **ARETO-FUTBOLEKO KANPOKO PISTA ETA FUTBOL-ZELAIK**

#### **24. artikulua**

1. Zelai hauetara sartzeko gomazko zola eta takoak dituzten oinetakoak erabili beharko dira, ahal izanez gero, tako askotakoak eta orpoan, gutxienez, lau tako dituztenak.
2. Erabat debekatuta dago erretzea edo instalazioak zikindu ditzaketan elikagaiak jatea: pipak, fruitu lehorrak, etab.

3. Instalazio hauen erreserba egiteko eta erabiltzeko aintzat hartuko dira ondorio horretarako emandako araudia eta Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzari dagozkiona.
4. Legez ezarritako tokiko kirol-klubek erabilera-lehentasuna izango dute.
5. Libre dauden eta tokiko futbol-klubek erabiltzen ez dituzten orduetan, erabiltzaileek areto-futboleko pista eta futbol-zelaiak erreserbatu ahal izango dituzte, futbol 11rako zein futbol 7rako ere.
6. Arazoren bat dagoela ikusiz gero, UKIko harrera-lekuan horren berri eman beharko da.

## **9. KAPITULUA:**

### **TENIS ETA PADEL PISTAK ETA LARREAKO FRONTOIA**

#### ***25. artikulua***

1. Pista hauetan UKIk antolatutako ikastaroak, kanpainak eta lehiaketak egingo dira, bai eta tokiko klubaren lehiaketak eta beste edozein erabiltzailek egindako banakako erabilerak ere.
2. Instalazio hau araudi honetako arau berezien eta Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzaren arabera erabili ahal izango da.
3. Instalazio hauen erreserba egiteko eta erabiltzeko aintzat hartuko dira ondorio horretarako emandako arauak, Araudi honetako 29. artikuluan jasota daudenak, eta indarrean dagoen Tasen eta Prezio Publikoen Ordenantzari dagozkionak.
4. Kirol-jantziak eta oinetakoak erabili behar dira.
5. Larreako Frontoiak lehentasunarekin pilota eta frontoiko modalitateentzako erabilera izango du. Hala ere, beste kirol erabilerak baimendu ahalko dira, instalazioak horietarako baldintzak dituztenean.
6. Pisten erabileran UKIk edo erakunde kolaboratzaileek antolatutako ikastaroek, gertakizunek eta torneoez lehentasuna dute.
7. Tenisean eta padelean ezin dira pista bakoitzean lau pertsona bano gehiago egon (UKIarekin aurretik hitzartzearen kasuan posiblea izango da).
8. UKIn òklase partikularrak ò ematea òdebekatuta ò dago eta arau-hauste òoso larria ò dela kontsideratzen da, horrek ekarri ditzakeen ondorioekin. Kasu horretan, UKIren baimenik gabe, teniseko edo padeleko erreserba batean horietako kirolen bat irakasteko edozein titulazio mota duen pertsona bat pistan beste pertsona gehiagorekin dagoenean eta pilota-gurdi edo -saski bat edo gehiago dituztenean klase partikularra dela kontsideratzen da.

## **10. KAPITULUA:**

### **SAUNA**

#### ***26. artikulua***

- 1 Saunaren zerbitzua 16 urte gorakoentzat zuzenduta dago, eta baita 16 urte baino gutxiago izan eta medikuaren gomendioz erabili behar dutenentzat ere. Ez da komenigarria 16 urte baino gutxiago dituzten gazteek erabiltzea. 16 eta 18 urte bitarte dituztenek beren gurasoek sinatutako baimena aurkeztu beharko dute.

- 2 Kontraindikazioak: Arteria-hipertentsio larria, arteria-hipotentsioa, barne- edo kanpo-barizeak nahiz eta operatuta edo injekzioa jarrita egon, bihotz-hodietako gaixotasunak oro har eta haurdun dauden emakumeak. Beste gaixotasunen edo dudak kasuan, zure medikuari galdetu. Ez sartu saunan sendagaiak hartzen baldin bazara, medikuarekin hitz egin eta horrek gomendagarria dela kontsideratu ezean.
- 3 Instalazio hau erabilgarri egongo da gizonentzat zein emakumeentzat egun eta/edo ordu ezberdinetan.
- 4 Saunara sartu aurretik, duxatu egin behar da (ura eta xaboia), gorputz osoa lehortuz. Halaber, eskuoihal bat eraman behar da saunaren barruan esertzeko edo etzateko. Irteterakoan jantzi, izerditzeari utzi diozunean.
- 5 Debehatuta dago saunara sartzeko edozein oinetako-mota jantzita; beraz, oinutsik sartu beharko da.
- 6 Osasun-arrazoiak direla medio, debehatuta dago gaixotasun kutsakor edo infekzio-kutsakor bat duten pertsonak sartzeko.
- 7 Ez sartu saunan jan edo alkohola edan ostean. Erredurak sortu ditzaketen kate, eskumuturrekin, eraztun edo beste objektuekin ez sartu. Ez sartu aldizkaririk.
- 8 Saunan ezin da jan, edan, erre, depilatu, bizarrak moztu ezta kremak edo olioak erabili ere.
- 9 Instalazio honetara sartzeko, ezarritako Tasa edo Prezio Publikoa ordaindu beharko da. Gomendatutako erabilera-denbora 10-15 minutukoa da.



**VII. TITULUA:**

**KIROLDEGI-, TENIS-, PADELA, SQUASH ETA KANPOKO ARETO-FUTBOLEKO  
ERRESERBEN ARAUDIA**

**29. artikulua**

1. Pista hauen erreserba hileroko edo unean-unean egin ahal izango da.
2. Titulu honetan aipatutako edozein kirol-instalazio erreserbatu (ordu eta pista bat (1) ulertuko da) eta erabilera ordainduz gero, parte hartzen duten kirolari guztiek sartzeko eskubidea izango dute, urteko harpidedunak izan ala ez izan. Hortaz, ez dute ezer ordainduko.
3. Era berean, argiak barne egongo dira, hala behar izanez gero, kargu gehigarriak izan barik.
4. Ondasun publiko baten (kasu honetan, kirol-instalazioak) erabilera pribatua aurrez erreserbatu duen lagunaren eskubideak eta betebeharrak erreserba egiten duen unean sortuko dira, baina ez erreserbaren gozamina lortzen duenean. Horrela bada, erreserba horrek ekarri ditzakeen arriskuak, zerbitzuaren funtzionamendu txar bati egotzi ez bazaizkio, interesdunak borondatez hartuko ditu bere gain.
5. Eguraldi txarra dela eta, pistetan ezin bada kirol-jarduerarik egin, interesdunak eguna eta ordua aldatzeko eskatu ahal izango du, jarduera egiteko aurreikusitako hogeita hamar minutu (30<sup>o</sup>) lehenago, aurretiazko erreserba-ticketa erakutsiz. Kasu horretan, aurrekoa ordezkatzeko duen ordaindu beharko ez duen beste ticket bat emango zaio. Interesduna ez bada bertaraten ezarritako epearen barruan, ez da aldaketarik egingo.
6. UKIri zuzenean leporatu ahal zaion edozein arrazoi dela eta, zerbitzu publikoa ezin bada egin eta erabiltzaile batek ezin badu aurrez erreserbatutako eskubidea gauzatu, eguna eta ordua aldatuko zaizkio edo zenbatekoa itzuliko zaio, interesdunak hautatzen duenaren arabera.
7. Hileko erreserba bat egiteko, ezarritako prezioa aurreko hileko 15. eguna baino lehen ordaindu beharko da. Hala ez balitz, ordu hori libre gelditzen dela ulertuko da eta beste erabiltzaileek hartu ahalko dute.
8. Hileko erreserba bakarrik hurrengo hilerako egin ahalko da, inoiz ez 2 edo 3 hile beranduagorako.
9. Pisten erabileran UKIk edo erakunde kolaboratzaileek antolatutako ikastaroek, gertakizunak eta torneoak lehenago dute.
10. Erreserbaren titularra beti pistan egon beharko da.
11. Harpidedun batek ordu jakin baterako egin duen erreserbaren eskubidea beste lagun bati laga ahal izango dio, harrerako langileen aurrean. Horiek erreserba zaharra ezeztatu eta berri bat egingo dute eta erreserba erabili behar duen pertsonaren izenean ticket berri bat egingo dute. Erreserba erabiltzaile bati uzten badio (harpidedun ez den bati), horrek prezioaren alde ordaindu beharko du erabili aurretik.
12. Tenisean eta padelean ezin dira pista bakoitzean lau pertsona bano gehiago egon (UKIarekin aurretik hitzartzearen kasuan posiblea izango da).
13. Aplikazio informatikoa eskatutako eskakizunak betetzen dituzten aurretik erregistratutako pertsonak erreserba Internet bidez egin ahalko dute.
14. Harpidedunek behin-behineko uneko erreserbak egin ahal izango dituzte telefonoz. Behin betiko erreserba bihurtzeko, kiroldegiko harrera-lekura bertaratu beharko da, gutxienez egun bi lehenago (beranduen, jarduera egiteko aurreikusitako egunaren

bezpera-aurrekoan) kiroldegiaren harreran. Bertan horiek ordainduko ditu, edo edozein kasuan, horien erabili aurretik ordaindu beharko ditu. Baldintza horiek bete ezean, behin-behineko erreserba baliogabetu egingo da eta beste erabiltzaile baten eskura igaroko da. Egun batetik bestera eta egun beraren barruan, erreserba guztiak ziur egingo dira.

## **VIII. TITULUA:**

### **ZEHAPEN ARAUBIDEA**

#### ***30. artikulua***

Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da eta, hala, UKIko organo eskudunak zehatu ahal izango du.

#### ***31. artikulua***

Instalazioetako arduradunek ohartarazi edota kanpora bidali ahal izango dituzte behar bezalako jokaera erakusten ez duten lagunak. Nolanahi ere, aurrez, instalazioan dagoen UKIko arduradun nagusienari jakinarazi beharko diote.

#### ***32. artikulua***

UKIko instalazioak eta euren zerbitzuak eta ekipamenduak erabiltzean, ustekabeen gerta daitezkeen kalte pertsonalak ezin izango zaizkio inori leporatu eta ezin izango zaio ordaina eman Udal Institutuari ez Udalari. Salbuespen bakarrak langile arduradunaren (horrelakorik badago) erruz edo zabarkeriaz gertatutako kalteak eta instalazioen zein materialaren egoera txarraren ondoriozko kalteak dira.

#### ***33. artikulua***

33.1.- Arau-hauste oso larritzat hartuko da:

- a) UKIko beste erabiltzaile baten edo batzuen ondasunak lapurtzea edo lapurretan esku hartzea, ondasunen diru-balioa 300 eurotik gorakoa bada.
- b) Arduradun politikoei, funtzionario publikoei edo beste langileei araugabeko ekintza faltsuak leporatzea.
- c) 12 hilabeteko epean hiru arau-hauste larriak egitea.
- d) UKIn òklase partikularrakò ematea.

33.2.- Arau-hauste larritzat hartuko da:

- a) Lokaletan, instalazioetan edo materialean kalteak eragitea, gaitz ustez edo zabarkeriaz, konponketen prezioa 90 eta 299 euroen artean badago.
- b) Iraintzea edo pertsonen ohorea laidotzea.
- c) Besteei arau-haustea egitea funtsik gabe leporatzea.



- d) 12 hilabeteko epean hiru arau-hauste arinak egitea.

33.3.- Arau-hauste arintzat joko dira:

- a) UKIko beste erabiltzaileekin zein langileekin begirunerik ez izatea eta, bereziki, gure kulturaren, oinarrizko ohituren eta hezkuntza kontzeptua ulertzeko dugun eraren aurkako jokaerak erakustea orokorrean, eta bereziki zerbitzuak behar diren moduan ematea nahita oztopatzea.
- b) Instalazioetara iruzurrez sartzea.
- c) 90 puro baino gutxiagotan balioetsitako kalteak eragitea.

### **34. artikulua**

UKIko langileen oharrei jaramon egiten ez dietenek edo hausten dituztenek, instalazioak eta materiala bere helbururako erabiltzen ez dituztenek, eta, oro har, nahita edo gaitz ustez, instalazioetan edo lokaletan kalteren bat egiten dutenek, egindako haustearen arabera eta kaltearen balioa aintzat hartuta, zehapena jasoko dute, honako hauei jarraituta:

34.1.- Arau-hauste oso larriak Artezkaritza Batzarrak zehatuko ditu, inguruabarren arabera eta interesdunari entzun ostean. Horrek egindako kaltea diruz jarri beharko du berriz, harpidedun-egoera galduko du eta instalazioak erabiltzea debekatuko zaio sei hilabetetik urtebetera bitarteko epean.

34.2.- Arau-hauste larriak Presidenteak zehatuko ditu, inguruabarrak aintzat hartuta eta interesdunari entzun ostean. Horrek egindako kaltea diruz jarri beharko du berriz, harpidedun-egoera galduko du eta instalazioak erabiltzea debekatuko zaio hil batetik sei hilera bitarteko epean.

34.3.- Arau-hauste arinak Presidenteak zehatuko ditu, inguruabarrak aintzat hartuta eta interesdunari entzun ostean. Horrek egindako kaltea diruz jarri beharko du berriz, harpidedun-egoera galduko du eta instalazioak erabiltzea debekatuko zaio, gehienez, zazpi eguneko epean.

### **35. artikulua**

Zehapena Presidenteak ezarri badu, horrek Artezkaritza Batzarrari aditzera emango dio egingo den hurrengo batzarrean, txosten baten bidez. Txostenean honako hauek sartu beharko ditu:

- Zein hutsegite egin den eta nork egin duen.
- Ezarritako zehapena.
- Arau-hauslearen alegazioa.

**IX. TITULUA:**

**ERABILTZAILEEN KEXAK**

**36. artikulua**

UKIko instalazioetako erabiltzaileen bermeak babesteko, eta egindako kexak zerbitzuaren kudeaketa osoki hobetzeko tresnatzat hartuta, instalazio guztietan erreklamazio-liburua eta iradokizun-orriak egongo dira, eta ikusgai egongo den leku batean horien berri emango da.

Edozein erabiltzailek erabili ahal izango ditu askatasunez, bidezkotzat jotzen dituen erreklamazioak edo iradokizunak egiteko. Harrera-lekuko langileak egiatan jaso duela ziurtatzeko, erreklamaziogilearen izen osoa, helbidea eta telefonoa ipini beharko da, eta, halaber, data jarri eta izenpetu egin beharko da.

Aitzakiarik gabe, Zuzendaritzak erantzungo ditu, idatziz, gehienez zazpi egun naturaleko epean.

**X. TITULUA:**

**UKI-KO LANGILE TEKNIKARIAK**

**37. artikulua**

1. UKIk nahikoa langile teknikari izango du bere erabiltzaileei zerbitzu egokia egiteko.
2. Egindako zerbitzuen eta instalazioen funtzionamenduaren arduradun tekniko nagusia zuzendari kudeatzailea da. Gorputz Hezkuntzako Lizentziaduna edo Jarduera Fisikoko eta Kiroleko Zientzietan lizentziaduna izango da.
3. Kirol-egitarauaren eta ikastaroetan zein jardueretan erabilitako metodologiaren arduradun tekniko bat egongo da eta horrek aurretik aipatutako titulazio akademiko bera izan beharko du..
4. Kirol monitoreek beren funtzioak modu egokian garatzeko gaitasun profesional nahikoa dutela egiaztatzen duen titulazio espezifikoa izan beharko dute.
5. Harrera-lekuko eta jendeari harrera egiteaz arduratzen diren administrazioko langileak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren hizkuntza bietan jarduteko gai izango dira.

**XI. TITULUA:**

**AZKEN XEDAPENAK:**

**38. artikulua**

Zenbait zerbitzu erabiltzeagatik artikulatu osagarri eta zabalagoa jarri ahal izango da, erabiltzaileek hobeto uler dezaten.

***39. artikulua***

Araudi honetan aurreikusi ez direnak, hasieran, Administrazioak ulertuko eta erabakiko ditu.

***40. artikulua***

Araudi honi eta Araudiari egindako aldaketei (Araudia indarrean dagoen epean halakorik badago) hasierako onespena emango zaie, hala badagokio, UKIren Artezkaritza Batzarrean, batzar-buruak proposatuta. Gero, jendaurrean jarriko dira iragarki-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta, 30 eguneko epean, jendeak aztertzeko eta bidezkoak diren alegazioak aurkezteko. Epea amaituta, alegazioak badaude, horien gaineko ebazpena egingo da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da osorik, indarrean sartu aurretik.

***41. artikulua***

Araudi hau Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilak 2ko 7/1985 Legeko 70. artikulua 2. atalean aurreikusitakoarekin bat etorriz indarrean sartuko da eta bere indarraldia mugagabea izango da.

***42. artikulua***

Araudi hau eskatzen duten erabiltzaile eta harpidedun guztiei banatuko zaie.

**UKI-AREN PRESIDENTEA**